

## Deialdia

### Ikerkuntzarako SGAE Fundazioa Sariak 2014

Kulturaren ekonomian, kulturaren soziologian, kultura-politikan, kultura-gestioan  
eta kulturarako eskubidean

#### DEIALDIAREN OINARRIAK

#### I. Klausula komunak

##### 1.- Parte-hartzaileak

Deialdiaren helburuarekin lotutako ikerkuntza zentro publiko edo pribatu bateko kide diren pertsona fisiko edo juridikoak, edonon jaio eta bizi direla.

##### 2.- Ikerkuntzaren helburua

- Ikerketa gai honi buruzkoa izan beharko da: **arte eszenikoen, arte musikalen, ikus entzunezko arteen edo multimedieiaren** oraingo merkatu kulturalari buruzkoa. Positiboki baloratuko dira honako hauek: analisi konparatiboak beste herrialde batzuekin, Espainiaren eta Latinoamerikako estatuen arteko kultura arloko hartu-emanaren ikerketa eta zerbitzuen eta produktu kulturalen esportazioa beste herrialde batzuetara.
- Ikerketek diziplina hauetako batzuk jo beharko dituzte:
  - Kulturaren soziologia
  - Kulturaren ekonomia
  - Kultura-politika
  - Komunikazioa eta kultura
  - Kultura-gestioa
  - Kulturarako eskubidea

##### 3.- Eskatutako agiriak

- Eskatzaileen harremanetarako datuak: izen-abizenak, posta-kodea, telefono zenbakia eta helbide elektronikoa.
- Eskatzaileen NANen edo agiri analogo baten fotokopia.
- Eskatzaileen Curriculum Vitaea.
- Ikerketaren testua PDF formatuan bidali beharko da, eskatzaileek Ikerkuntzarako Sarian, Doktorego-tesirako Sarian edo Ikerketa-lanerako Sarian parte hartzen badute. Doktorego-tesia Egiteko Diru-laguntzarako hautagaiak badira, tesiaren proiektua bidali beharko dute PDF formatuan.
- Autoretzaren zinpeko deklarazioa, eta aurkeztutako ikerketa edo proiektuaren (Doktorego-tesia Egiteko Diru-laguntzarako hautagai izanez gero) gaineko eskubideak ez daudela konprometituta eta eskatzaileak horien titularrak % 100ean direla dioen aitortpena.

Deialdi honetarako modalitate guztiei dagozkien eskakizun komunez gain, parte hartzaileek euren modalitateari dagozkion agiri espezifikoak ere erantsi beharko dituzte.

## II. Doktorego-tesi onenaren Saria

### **1.- Lehiaketan aurkezteko, lanek izan behar dituzten ezaugarriak**

- Sari honetarako hautagai izango dira oinarri hauetako 1.2 puntuko helburuarekin bat datozen eta dagoeneko gaindituta dauden doktorego-tesiak.
- Lehiaketan 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera gainditutako doktorego-tesiak baino ez dira onartuko. Aurreko deialdietan parte hartutako doktorego-tesiak ezingo dira aurkeztu.
- Doktorego-tesia ezingo da argitaratuta egon, gutxienez edukiaren % 75ean; eta ondorioei dagokienez, bere osotasunean.
- Originalak honako ezaugarri hauen antzeko ezaugarriak izan beharko ditu: DIN-A4 formatuko 200 orrialde gutxienez, espazio bikoitzean idatzita, alde bakar batean, *arial* letra-tipoan eta 11 letra-tamainan, 3 cm-ko goiko marjinarekin eta 4 cm-ko beheko marjinarekin, eta 3 cm-ko marjinarekin aldeetan.
- Doktorego-tesiarekin batera epaimahaiaren akta ere aurkeztu beharko da. Hori posible ez bada, epaimahaiaren aurrean aurkeztutako data eta lortutako nota agertzen diren gutuna erantsi beharko da, tesiaren zuzendariak izenpetutakoa.

### **2.- Saria**

Saria honakoa izango da:

- 6.000 €
- Lana edo lanaren zati bat argitaratuko du SGAE Fundazioak, autoreak nahi izanez gero eta baimena ematen badu.

## III. Ikerketa-lan onenaren saria

### **1.- Lehiaketan aurkezteko, lanek izan behar dituzten ezaugarriak**

- Sari honetarako hautagai izango dira oinarri hauetako 1.2 puntuko helburuarekin bat datozen eta bukatuta dauden ikerketak. Gainera, ikerketa horiek lizentziaturaren, masterraren edo graduondoko ikasketen (doktorego-ikastaroaren amaieran egindakoak barne) ikerketa-lana (tesina) osatu beharko dute.
- Lehiaketan 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera gainditutako ikerketa-lanak baino ez dira onartuko. Aurreko deialdietan parte hartutako ikerketa-lanak ezingo dira aurkeztu.
- Ikerketa ezingo da argitaratuta egon, gutxienez edukiaren % 75ean; eta ondorioei dagokienez, bere osotasunean.
- Originalak honako ezaugarri hauen antzeko ezaugarriak izan beharko ditu: DIN-A4 formatuko 60 orrialde gutxienez, espazio bikoitzean idatzita, alde bakar batean, *arial* letra-tipoan eta 11 letra-tamainan, 3 cm-ko goiko marjinarekin eta 4 cm-ko beheko marjinarekin, eta 3 cm-ko marjinarekin aldeetan.
- Ikerketa-lanarekin batera epaimahaiaren akta ere aurkeztu beharko da. Hori posible ez bada, epaimahaiaren aurrean aurkeztutako data eta lortutako nota agertzen diren gutuna erantsi beharko da, proiektuaren zuzendariak izenpetutakoa.

### **2.- Saria**

Saria honakoa izango da:

- 3.000 €
- Lana edo lanaren zati bat argitaratuko du SGAE Fundazioak, autoreak nahi izanez gero eta baimena ematen badu.

## **IV. Doktorego-tesiak egiteko diru-laguntzak**

### **1.- Lehiaketan aurkezteko, proiektuek izan behar dituzten ezaugarriak**

- Diru-laguntza hauetarako hautagai izango dira oinarri hauetako 1.2 puntuko helburuarekin bat datozen doktorego-tesien proiektuak.
- Doktorego-tesirako proiektuak eitura hau izan beharko du:
  - Justifikazioa eta aurrekariak
  - Helburuak
  - Metodologia
  - Erreferentziazko oinarrizko bibliografia
  - Kronograma

Gainera, tesiaren zuzendariak izenpetutako gutuna erantsi beharko da, hautagaiaren ikerketarako gaitasuna ziurtatzen duena.

### **2. Diru-laguntzak**

6.000 €-ko diru-laguntza jasoko dute doktorego-tesirako bi proiektuak. Honela jasoko dute dirua:

- % 25 diru-laguntza onartzerakoan.
- % 75 epaimahaia tesia gaitzen duenean. Diru hori jasotzeko, diru-laguntza onartzen denetik 30 hilabete pasatu baino lehen amaitu beharko da tesia. Erakundeari idatziz eskatu ostean, epea luzatu ahalko da, tesiaren zuzendariak egoki baderitzo.
- Lana edo lanaren zati bat argitaratuko du SGAE Fundazioak, autoreak nahi izanez gero eta baimena ematen badu.

## **V. Epaimahaia**

SGAE eta SGAE Fundazioak hautatutako pertsonak osatuko dute sariak eta diru-laguntzak emango dituen epaimahaia.

## **VI.- Harrera-data**

Deialdia indarrean egongo da **2014ko azaroaren 14ra** arte (egun hori barne), eta egun horretara arte onartuko dira jasotako originalak eta proiektuak.

## **VII.- Sarien epaitza eta diru-laguntzak ematea**

Epaitza idatziz jakinaraziko die deialdi honetan parte hartu duten guztiei.

## **VIII.- Originalak itzultzea**

Autoreek hautaketaren jakinarazpenetik 30 eguneko epean eskatu dituzten originalak baino ez ditu itzuliko SGAE Fundazioak.

### **IX.- Argitaratze-baldintzak**

Lanak onartu zaizkien parte-hartzaileek SGAE Fundazioari bakarrik lagatzen dizkiote argitaratzeko eta banatzeko eskubideak, lana hautatu edo amaitu denetik, hala bada, 6 hilabeteko epean. 6 hilabete horiek pasatzen direnean SGAE Fundazioak ez du lanaren eskusiba izango, eta SGAE Fundazioaz gain edozein pertsonak edo entitatek argitaratu ahalko du

Saria dirutan jasoko da aldez aurretik, SGAE Fundazioak lana banatzerakoan sortuko diren autore-eskubideengatik. Gainera, autoreak testua moldatu behar badu argitaratu ahal izateko, egindako lanak ordainduko zaizkio.

Lanaren argitaratzeko eskubideen lagapena alderdiek sinatuko duten kontratuan arautuko da. Horrek indarrean dagoen jabetza-intelektualaren inguruko araudiari jarraitu beharko dio, eta merkatuaren ohiko estandarren eta interesdunen eskura daudenen arabera izango da.

### **X.- Arau orokorrak**

#### **1.- Oinarriak onartzea**

Deialdi honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzea eta erreklamazio legalei uko egitea dakarkie partaideei. Oinarrien inguruko zalantzarik badago, Batzorde Antolatzaileari galdetuko zaio eta idatziz jakinaraziko zaie eskatzaileei.

#### **2.- Erreklamazioak**

Sarien epaitzaren eta doktorego-tesiak egiteko diru-laguntzen erabakiaren kontrako erreklamaziorik ez da onartuko.

#### **3.- Norberaren datuen babesa**

Autoreek borondatez eman dituzten datu pertsonalak SGAE Fundazioaren ardurapeko fitxategi batean gordeko dira. Izan ere, Norberaren Datuak Babesteko Legea eta horrekin lotuta indarrean dauden arauak ezarriko dira une oro.

**4.-** Parte-hartzaileek SGAE Fundazioa erantzukizunetik salbuetsiko dute, hautatutako lana egitean eta garatzean indarrean dagoen legea hausten badute.

**5.-** Dokumentu honi ezartzen zaion legeria Espainiakoa da eta alderdiek egokitu ahal zaien foruari uko egin eta Madrilgo Auzitegien jurisdikziopean egotea onartzen dute.

**Informazio gehiago:**

**SGAE Fundazioa**  
**Ikasketa Saila**  
**Bárbara de Braganza kalea 7**  
**28004 Madril**  
**Tel.: 91 503 6800**  
**Faxa: 91 503 6819**  
**[informacion@fundacionsgae.org](mailto:informacion@fundacionsgae.org)**